


Hurakanaren mehatxua

Joan den astean *Floyd* hurakanak izugarritzko kalteak egin zituen EEBBetan. Atlantikoan inoiz izan den hurakan bortitzena izan zen, eta hamar pertsona hil eta ehunka etxebizitza hondatu zituen. Hala ere, hurakana EEBBetako Ipar eta Hego Karolina estatuetara heldu zenerako indarge zegoen, ozeano erdian sortu baitzen.



Ezkerrean, Floyd hurakanaren itxura satellite bidez ateratako argazki batean. Beheko argazkian argi ikus daiteke bere indarra.

HURAKANA SORTZEA EZ DA BATERE ERRAZA, baldintza klimatiko jakin batzuk behar dira. Gutxi gorabehera, 11 kilometroko altura izaten dute, eta, 500-1.000 kilometro arteko zabalera. Handienak Ozeano Barean sortzen dira; 1.800 kilometroko diametroa neurtzera irits daitezke. Gainera, orduko 120 kilometroko haize-erauntsiak eta bilioi bat litroko euri-jasak ekartzen dituzte. Baina, nola sortzen dira?

Tropikoko ozeanoan soilik sortzen diren fenomenoak dira; izan ere, itsasoko ura bero egon behar du (28-29°) hurakana sortzeko. Berotasun horren eraginez, itsasoko urak azkar-azkar lurrindu eta gorantz egiten du. Horrela sortzen da hurakanaren energia. Izan ere, lurrin makina baten moduan funtzionatzen du hurakanak: lurrinduriko eta kondentsaturiko aire bero eta hezeak ematen dio indarra. Lurrinduriko ura kondentsatu egiten da eta hodeiak sortzen dira. Eta kondentsazio hori dela-eta sortzen dira haize bortitzak eta euri-jasak.

Hurakana sortzeko beste elementu garrantzitsu bat haizea alde edukitzea da, ur lurrinduak arazorik gabe gorantz egin dezan. Ur lurrindua daraman aire hezea espiralean igotzen da, eta, horrela, ur gehiago lurrintzen da. Atmosferan gertatzen den egongaitzasunaren ondorioz mugitzen da airea espiralean; lurrinduriko uraren aire beroaren eta atmosferako aire hotzagoaren artean gertatzen den egongaitzasunaren eraginez alegia. Hurakanaren inguruko airea, noski, hotzagoa da. Hurakana sortu eta astebetara orduko 118 kilometroko abiadura hartzen du espiralaren mugimenduak.



DAVE MARTIN / AP

Hurakanen sailkapena Saffir-Simpson eskalaren arabera

1. mailakoak:

Hurakan ahulak izaten dira, kalte txikiak sortzen dituzte. Izan ere, hurakan horien haizearen indarra orduko 120 kilometrotik 125 kilometrora artekoa da.

2. mailakoak:

Kalte handirik sortu ez arren, zertxobait handiagoa da hauen arriskua. Kasu hauetan, orduko 153 kilometrotik 176rako indarra izaten du haizeak.

3. mailakoak:

Hurakan bortitzak. Kalte handiak sortzen dituzte; orduko 177 kilometrotik 208ra bitarteko indarra izaten du haizeak.

4. mailakoak:

Oso hurakan bortitz eta kaltegarriak sailkatzen dituzte maila honetan. Orduko 209 kilometrotik 248 kilometrora bitarteko indarra izaten du haizeak.

5. mailakoak:

Hurakan hondagarriak dira maila honetakoak. Orduko 248 kilometrotik gorako indarra du haizeak, eta izugarritzko txikizioak egiten ditu.

Lurrarekin batera mugitu eta lurtean hil

Hurakanaren begia da —erdigunea— hurakanaren zatirik lasaiena. Itsasoaren mailatik hurakanaren goi mailaraino hodeirik gabeko gune bat sortzen du hurakanaren begiak. Begiaren hormetan daude haizerik bortitzenak eta euriz beteriko hodeiak, eta, pixkanaka-pixkanaka, ur lurrindu berria gorantz igotzen doan neurrian, kanporantz joaten dira hodei eta erauntsi horiek.

Hurakanak ez dira geldirik egoten, horregatik egiten ditu kalteak haren haize-erauntsiak. Hurakanak berak sortzen duen energia eta Lurraren errotazioaren eraginez mugitzen da. Eta leku batetik bestera mugitzean, gutxi gorabehera, orduko 22 kilometroko abiaduran joan ohi dira hurakanak. Era berean, Coriolis indarraren eraginez, hots, Lurraren errotazioaren eraginez, hurakanean biltzen diren hodeiak biribilean mugitzen dira: Hego Hemisferioan erlojuaren orratzen norabide berean; Ipar hemisferioan, berriz, kontrako norabidean.

Esan daiteke itsasoan sortzen den hurakana lehorrera etortzen dela hiltzera. Izan ere, kostaldeko mendiekin tupust egiten duenean indarra galdu eta haizearen abiadura geldotu egiten da —egun batzuk behar dira hurakana erabat gelditzeko; bien bitartean, aurrean duen guztia eramaten du—. Hala ere, hondamendia ez da gelditzen: hodeiak hustu eta uholdeak sortzen baititu talka horrek.

• Ainhoa Oiarzabal •